



**Arartekoaren 2018S-1208-16 Ebazpena, 2018ko ekainaren 4koa. Horren bidez, Hezkuntza Sailari iradokitzen zaio, komeni dela anai-arreba bikiak eskolatzeko kasuetan familien nahia kontuan hartzea.**

### Aurrekariak

1. Arartekoak guraso batzuen kexa jaso zuen; horren bidez, erakunde horren esku-hartzea eskatu zuten ikastetxeek anai-arreba biki adingabeak eskolatzeko orduan familien nahia kontuan har dezaten ziurtatzeko.

Erakunde honetan kexa aurkeztu zuen familiak honako hau ikusi zuen: seme-alabak eskolatzeko hautatu zuen ikastetxeak anai-arreba bikiak ikasgela ezberdinetan eskolatzeko baino ez zuela jasotzen eta, ikastetxeak berak proposatutako eskolatzeko baldintzak onartu bazituen ere, kexaren oinarriari eutsi ziola, hau da, erakunde honek aurrez egindako jarduketa bati eta behar bezala jasota geratu zena Eusko Legebiltzarrean 2014an aurkeztutako txostenean.

Jarduketa horren ondorioz, orduko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunek begi onez ikusi zuten Arartekoak iradokitako jardunbide egokia kontuan hartzea; haren arabera, seme-alaba bikiak ikasgela berean edo ezberdinetan eskolatzeari buruzko erabakia hartzeko garaian gurasoek parte hartu beharko zuten; hala, ildo horretan, ikasturte hasierako ohiko ebazpenetan orientabideren bat sartu beharko litzateke.

2. Jasotako kexa izapidetzeko onartzea erabaki ondoren, Arartekoak Hezkuntza Saileko arduradunen aurrean beste jarduketa bat hastea erabaki zuen. Hala, gai berari buruzko kexa gehiago jasotzeak agerian jartzen zuen aurrez egindako kudeaketetan sailak iradokitako eran orientabideren bat ez zela jaso, eta horretaz jabetzean, oraingoan hezkuntzako arduradunei argi eta garbi galdetu zien hau: orientabideren bat ez jasotzeko arrazoia ebazpen horiek era horretako gomendioak jasotzeko dokumentu edo tresna egokia ez izatea zen, edo egiaz gertatzen dena den jardunbide egoki honen behar edo egokitasunarekin ados ez daudela.
3. Hezkuntzako arduradunak erakunde honen galderei ikastetxetako eta plangintzako zuzendariaren txosten bat igorri erantzun die (hari buruz luze eta zabal hitz egingo dugu hurrengo gogoetetan).





## Gogoetak

1. Aurrekarietan dagoeneko adierazi den moduan, anai-arreba bikiak eskolatzeak nahitaezko erreferentziazko aurrekari bat du erakunde honetan: 1229/2014/QC kexa espedientea. Kasu hartan, kexa aurkeztu zuten gurasoak ere ez zeuden ados beren semeak –bi anai biki, bi urte bete ondoren, hezkuntza administrazioarena den ikastetxe publiko batean eskolatuko ziren– ikasgela ezberdinetan eskolatzearekin.

Hasiera batean, hezkuntza administrazio horrek aipatu zuen irizpide hori ikastetxeen pedagogia- eta antolakuntza-autonomiaren ondorioa zela, eta egoera horrek behartu zuela Arartekoa honako hau ohartaraztera: autonomia hori ez zela oztopo izan zitezkeen orientabideak bideratu ahal izateko, normalean ikasturte hasierako ebazpenetan berariaz jasotzen direnak.

Aldi berean, erakunde honek adierazi du eztabaida piztuta dagoela gizartean gai honen gainean, hau da, gero eta jende gehiagok jartzen duela zalantzan anai-arreba bikiak bereizita eskolatzeak, eskolan hasten direnean behintzat, oinarri zientifiko ukaezin bat duela. Horren harira, zenbaitek diote anai-arreba bikiak hasieran bereizitako ikasgeletan eskolatzeak oinarri zientifikorik ez duela, eta honako hau gomendatzen dute: eskolan hasten direnean, ikasgeletan banatzeko erabakia anai-arreba bikien inguruabar bereziak baloratzearen mende egotea, eta ildo horretan familiek zeresan handia dute; izan ere, haiek ezagutzen dituzte ondoen seme-alabak eskolatzea hasteko lehen une horretan; nolahi ere, aurrerago, adingabe horien eskolatzeko erari buruzko erabakiak haien hezkuntza-jarraipenak hartu ahalko ditu.

Horrenbestez, eta hezkuntza administrazioak beti bete dezakeen eta bete behar duen funtzio orientatzaileari helduz, jardunbide egokia egoteko aukera proposatzen dugu, alegia, gurasoek seme-alaba bikiak ikasgela berean edo bereizietan eskolatzeari buruz erabakiak hartzeko garaian parte hartu ahal izatea; horrenbestez, familiekin elkartu eta haiek eskola-komunitatean partaidetza aktiboa izango lukete.

Une hartan, orduko Arabako Hezkuntzako lurralde ordezkariak emandako erantzunean, 2014ko urriaren 16an, erakunde honi honako hau jakinarazi zitzaion: *“Arartekoaren instituzioaren gomendioan aipatutako alderdia ikasturtearen hasierako zirkularrean sartu behar den edo ez baloratuko du Hezkuntza Administrazio honek”*; horren ondorioz, jarrera on hori jaso genuen Eusko Legebiltzarrean 2014an aurkeztutako txostenean.





2. Hizpide dugun beste kexa honen harira egindako kudeaketei esker, erakunde honek berretsi ahal izan du Hezkuntza Saileko arduradunek aurrez proposatutako iradokizuna alde batera utzi dutela, ondoren laburbilduta ematen diren arrazoiengatik:

### **2.1. Ebidentzia zientifikorik ez dago**

Horri dagokionez, honako hau adierazi da erantzuna emateko txostenean:

*“Arartekok- azpimarratzen du ez dagoela adin bereko anai-arrebak gela ezberdinetan taldekatzea ona dela dioen ebidentzia zientifikorik, baina ez du aipatzen kontrakoa adierazten duen ebidentziarik dagoen ala ez, hau da, gela berean elkarrekin mantentzea ona dela frogatzen duena. Dena den, ikastetxe batek bere barneko arautegian erabakitzen badu egokiena dela hain zuzen adin bereko anai-arrebak separatzea, praktika dezentearen eskarmentuan oinarritzen da erabaki hori hartzeko”.*

### **2.2. Ikastetxeek antolaketan, pedagogian eta kudeaketan duten autonomia**

Horri dagokionez, honako hau argudiatu da:

*“Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 legeak antolaketa, pedagogia eta kudeaketaren aldetik autonomia ematen die ikastetxeei. Halaber, Hezkuntza Sailak funtsezkoa deritza ikastetxe bakoitzak taldekatzeari buruz hartzen dituen erabaki eta adosten dituen irizpideak errespetatzeari, izan ere, irizpide horiek Ikastetxeko Organo Gorenak onartutako arautegian jasota dauden.*

*Horregatik, eta aurreko guztia kontutan hartuta, ez dugu beharrezko ikusten Arartekok proposatu duen iradokizuna kontutan hartu eta ikastetxeera bidaltzen diren agindu dokumentuetan sartzea, besteak beste, Hezkuntza Sailburuordearen Ikasturte Hasierako Ebazpenan”.*

### **2.3. Izan daitezkeen desadostasunak konpontzea**

Ondorio gisa, erantzuna emateko txostenean ohartarazpen hau egin nahi izan da:

*“Gurasoek adierazi dezaketen edozein desadostasuna ikastetxeak ikasleak taldekatzeko erabiltzen dituen irizpideekiko, horretarako jarrita dauden*





*bitartekoen bidez bideratu behar da, ikas komunitateko kolektibo bakoitzak Ikastetxeko Organo Gorenean daukan ordezkartza erabiliz”.*

3. Arrazoi horiek guztiak kontuan hartuta, erakunde honek beharrezkoa ikusten du orain arte azaldutakoari gogoetarako beste elementuren bat eranstea, honi lotuta: anai-arreba bikien eskolatzeko egokienaren gainean normalean onartutako irtenbide baketsurik ez izatea.

Egia da halako kasuetan eskolatzeko era zehatz bat eztabaida ezin egiten duen ebidentziarik ez dagoela, denak egokiak izatea, eta horregatik, hain zuzen, gure aurreko esku-hartzean anai-arreba bikien inguruabar bereziei erreparatzea egokia zela azaldu genuen, xede horretarako familiek duten eginkizuna aldarrikatuz.

Nabarmendu behar da, eta Arartekoak gogoeta hau egin nahi du eztabaidaren puntu honetan, hari buruz dauden jarrerak alde batera utzita (guztiak zuzenak edo egokiak aipatu dugun moduan), arreta emateko egokitasuna edo hobe esanda, kasu bakoitzean dauden inguruabar bereziak kontuan hartzeko beharra, kaltetutako adingabeen interes partikularren ikuspegitik azpimarratu beharreko zerbait da; horrez gain, seme-alaben hezkuntzarekiko familiek bete dezaketen eta bete behar duten eginkizuna aldarrikatzen du.

Gogoeta horren jatorria nolabait berreste aldera, egokia iruditzen zaigu Badajozko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiaren epai bat aipatzea, 2017ko urtarrilaren 11koa (207/2015 Errekurtsoa); haren bidez, epaileak bere egiten du peritu judizialak aurrez egindako gogoetetako bat.

*“...la decisión acerca de la separación del aula de los gemelares, debería consensuarse con los padres, que conocen a sus hijos y son los principales responsables en la educación de los mismos. La decisión consensuada entre padres, docentes y servicios de orientación de los centros, garantizaría que la decisión tomada fuese lo más apropiada para el mejor desarrollo educativo, emocional y social de los mismos. Este consenso flexible y abierto, supondría evitar decisiones estáticas, fijadas a priori, sin tener en cuenta las singularidades de los gemelos. El hecho de que pudieran existir circunstancias particulares en las familias y en los gemelares, requiere de los centros educativos ser flexibles, basándose en la autonomía pedagógica que la Administración educativa otorga a los mismos. Por tanto, la decisión de separar o agrupar en el mismo aula a los gemelares, debería ser analizada en cada caso particular para tomar la mejor decisión de cara a un adecuado desarrollo psicopedagógico y social de los niños y del bienestar de las familias.”*





Horrenbestez, epai horretan honako hau proposatzen edo defendatzen da: bikien inguruabar bereziak erantzuteko eta haztatzeko beharra dagoela haien eskolatzearen gainean erabaki bat hartzeko unean; hori guztia, hala uste du behintzat erakunde honek, interes gorena babesteko asmoz, Haurren Eskubideen Batzordearen 14. Ohar Orokorrean adierazitako eran; ohar hori haurrak bere interes gorena lehentasunez irizteko (3. artikulua, 1. paragrafoa) duen eskubideari buruzkoa da, eta interes hori kasu horretan bere garapen psikopedagogiko eta soziala behar bezala garatzen dela ziurtatuz zehazten da, zer-nolako inguruabarrak edo ezaugarriak dituen kontuan hartuta.

4. Aintzat hartu behar da, gainera, epai horretan adierazten den moduan ere, ikastetxeei esaten zaiela komeni dela anai-arreba biki adingabeak eskolatzeko erari buruz jokabide malgua izatea, eta horrek ez diola autonomiari kalterik eragiten sail horrek ulertzen duen eran. Azpimarratu behar da, ez dela zalantzan jartzen ikastetxeek, beren autonomia baliatuz, eskolatzeko era bat edo bestea hautatu izana. Proposatzen dena honako hau da: ikastetxeak aurrez defendatutako jarrera arintzea komeni dela adingabeen inguruabar zehatzek beren interesen mesedetan hori egitea gomendatzen dutenean. Hau da, ezberdintasunak sor daitezkeen kasuetan bakarrik, adingabeen inguruabar bereziak lehenetsi behar dira, baina hori ez da interpretatu behar ikastetxeei aitortutako autonomia arbitrarioki edo arrazoirik gabe mugatzeko egoera baten moduan.
5. Halaber, erakunde honek azpimarratu nahi du, bere garaian egindako proposamena nolabait egokia zela berresteko (berriz diogu, ez du ikastetxeei aitortutako autonomia zalantzan jartzen), Hezkuntza sailburuordearen azken ebazpenean, haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetako 2017-2018 ikasturteko antolaketari buruzkoan, jasotako beste orientabide batzuen adibidea, familiekin egindako tutoretzei eta bilerei buruzko apartatuan jasota geratu den kasua, esaterako. Haren bidez, ikastetxeei honako hau iradokitzen zaie: *“Egokia dirudi atal honetan azken urteotan sortzen ari diren familia-irudi ezberdinak aipatzeak, izan ere, ikastetxeek familia-elkartze berri horiei egokitu beharra dute eta haien eskaera eta beharrei erantzun behar diete. Hori horrela, «Adoptia adopzio ondorengo gidaliburua hezkuntza arloko profesionalentzat eta gizarte-eragileentzat» baliagarria izan daiteke”*; hala ere, sailak ez du uste ikastetxeen autonomia zalantzan jartzen duenik.
6. Azkenik, amaitzeko eta izan daitezkeen desadostasunak konpontzeari buruzko erantzunean azaldutako argudioaren harira, erakunde honek aipatu nahi du egindako proposamenarekin honako hau lortu nahi zela ere: seme-alaba bikiak





dituzten familiek ez dezatela hasi eskaera, erreklamazio eta errekurtsoen ibilbide astun bat; izan ere, kasu gutxi batzuetan izan ezik, familiek beren helburuetan atzera egitea dakar eta seme-alabak eskolatzeko hautatutako ikastetxeak proposatzen dizkieten eskolatzeko baldintzak onartzea, kexagileen kasuan gertatu den moduan. Jakina, erantzunean argi eta garbi esaten denez, familiek beren asmoa baliarazteko zenbait bide dituzte, eta haiek erabili ahalko dituzte desberdintasunek iraun bitartean. Nolanahi ere, erakunde honen ustez, eskolatzeko baldintzei buruzko era honetako erabakiak berehala hartu behar dira; beraz, ezberdintasunak denboran luza ez daitezela komeni da, eta aldi berean, ziurtatzea familiek parte hartzeko aukera eta haiek entzuteko eskubidea izan dezaten beren seme-alaba bikien ezaugarri bereziei ondoen egokitzen zaizkion eskolatzeko-era zehaztu baino lehen, izapide gehiago egin beharrik gabe.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera

## IRADOKIZUNA

Arartekoak aurrez egindako iradokizuna errepikatu du eta, haren arabera, Hezkuntza Sailari eskatu dio sail horren mendeko ikastetxeei honako hau helaraz diezaiela, egokien iruditzen zaion eran: anai-arreba bikien eskolatzeko kasuetan familien nahia kontuan har dadila.

